


### PROFIL TOPOGRAFIKOA, 1




Kontraste nabarmena antzematen da mendialdearen eta sasi-landazabalaren artean, mendi-hegalak itsas mailatik 1.000 metroko garaieratik itsas mailatik 600 metrora egiten baitu soilik 1,5 km-ko tarte motzean. Mendialdearen profilean deigarria da itsas mailatik 900 metrotara dagoen koska, Peñas Rubiaseko haitzetako batekin bat datorrena. Sasi-landazabalak behera egiten du emeki-emeki Ebroraino, 100 m baino zertxobait gehiagoko malden arteko aldearekin eta profilean ondo ikus daitekeen mikro-erliebearekin. Misamayorreko pentokan bukatzen da, eta hor itsas mailatik 600m hartzen ditu.

### PROFIL TOPOGRAFIKOA, 2




Bigarren profila eremuko gunerik altuenetik abiatzen da, eta Ebroraino jaisten da; kontraste nabarmena dago mendialdearen eta landazabalaren artean. Kasu horretan, mendi-hegalaren koska zertxobait leunagoa eta etzanagoa da, nahiz eta 1.400 metro itsas mailatik (mim) 600 mim-era egiten duen 3 km-ko tarte motzean. Sasi-landazabaleko eremua Ebroraino jaisten da aurreko profilean baino emekiago eta horizontalago, eta mikro-erliebea ez da horren nabarmena. Ricararera muino edo pentokan bukatzen da, eta hortik hurrengo terraza-mailara eta Ebro ibaiaren ibarrera egiten du.

### PROFIL TOPOGRAFIKOA, 3




Profileko koskak ia 900 mim-etik 400 mim eskasera jaisten da 14 km-ko tartean, sakan, ibar eta terrazaz osaturiko hegaletan zehar; grafikoaren lerroan ondo baino hobeto ikus daiteke. Ebro ibaira iritsi aurretik, La Mesa pentoka dago, eta 500 mim-etik gora egiten du.

### PROFIL TOPOGRAFIKOA, 4




Azken profilak Gatzaga Buradoneko La Hoya ebakitzen du iparretik hegora. Hiru kilometrotik beherako tarte batean, Cabrera mendiak 700 mim inguruan dituen erliebeetatik San Kristobal mendiak 850 mim-era dituen erliebeetara pasatzen da. Tartean uzten du Valagonda errekastoaren ibarra, zeinak 450 mim-era egiten duen behera eta itxita geratzen den zulo batean. Erliebeetako mendi-hegalek kareharrizko malkarrak dituzte gailurretan, eta arinago egiten dute behera 580 mim-etik ibarraren hondoraino.

## UNITATE MORFOESTRUKTURALAK

**MENDILERRO SUBALPETARREKO UNITATEAK**

- KAREHARRIZKO MENDILERROA
- MENDILERROAREN HEGIAK
- BASTIDAKO MENDIAK
- GATZAGA BURADONGO 'LAPIKOA' (MENDIARTEA)

**EBROKO LANDAZABALEKO UNITATEAK**

- MAHAIEN, PENTOKEN ETA MUINOEN SASI-LANDAZABALA
- IBAR NABARMENEN ARTEKO LANDAZABALA
- SAN GINES, UNEBA ETA GALIJO ERREKEN IBARRAK
- EBROKO IBAI-MULTZOA
- VALDEVARÓN ERREKAREN ARROA ETA SAKANAK
- LABRAZA ERREKAREN ARROA
- BUEMPAJERA ERREKAREN ARROA
- CONCHAVAL ERREKAREN ARROA


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA
Euskadiko Paisaia
Paisaje de Euskadi


# PAISAIAREN KATALOGOA
## ARABARAKO ERRIOXA

2011ko azaroa



I. EGITURA

**I.2 UNITATE MORFOESTRUKTURALAK (1/2)**

Eskala 1:25.000

MELISSA

ETRS89